

IPARRALDEKO EKOIZPENEN KATALOGOA

Catalogue des
productions
d'Iparralde

55. DURANGOKO AZOKA

2020ko abenduaren 4tik 8ra

www.durangokoazoka.eus



TAU
PA
DA!

A large, stylized illustration of a hot air balloon shaped like a heart. The words "TAU PA DA!" are written in a large, pink, brushstroke-style font across the center of the balloon. The balloon is filled with various colorful elements: a small figure standing on top, a red flame at the base, yellow and pink foliage, and a blue and white striped pattern on the side. The background is a dark, rainy night sky.

Iparraldetik ere «TAU PA DA!»

55.edizioko leloa "TAU PA DA! " izanen da

Aurten, Kulturaren plaza den Durangoko azokaren 55. edizioa ez-ohikoa izanen da. Osasun egoerak baldintzatuta, ez da egonen erakusmahairik azoka aterbetzen duen Landako gunean eta produktu guziak denda birtualean erosten ahalko dira. Durangoko Azokako egitaraua streaming bidez eta bertatik jarraitu ahal izanen da, aforo mugatuarekin. **Bi espacio izanen dira: Landako Gunea eta Plateruena.**

Aldaketa nagusia erakusmahaiekin lotua egonen da: aurten ez da stand-ik izanen Landako Gunean. Horren ordez, **Durangoko Azokako webgunean (durangokoazoka.eus)** denda birtuala sortuko da eta azokazaleek bertan erosi ahal izanen dituzte produktu guziak, **abenduaren 4tik 8ra arte**. Landakon egon ohi diren liburu, disko, ikus-entzunezko eta gainerateko 2 300 sormen-lanak eskuragarri egonen dira Azokako web orrian: klik egin eta aukeratutako DA! produktu-sorta jasoko du kulturzaleak bere etxeen.

Gerediaga elkarteko lehendakaria den Nerea Mujikak nabarmendu duenez, Durangoko Azokak erronka handia du aurrez aurre: “Azokak erakutsi du bere 55 urteko ibilbidean garai berrietara egokitzeko gaitasuna, eta aurtengoan ere hala egin beharko du, bere identitatea galdu gabe. Presentzialki ezinezkoa izango den arren, plaza digitala eskainiko dio euskal kulturari”.

Egitarauak ere, bere aldetik, aldaketak izanen ditu. Azokak **bi espacio antolatuko ditu abenduaren 4tik 8ra (Landako Gunea eta Plateruena)** eta bertan diciplina ezberdinak ikuskizun eta ekitaldiak izanen dira: kontzertuak, solasaldiak, proiekzioak... Aforoa mugatua izanen da eta aitzinetik erreserba egin beharko da.

Azokan egiten diren salmentek Hego Euskal Herriko argitaletxe eta diskoetxeen fakturazioan pisu handia dute (Siadecok egindako kultur kontsumoei buruzko ikerketaren arabera, %22koa da bataz beste). Iparraldeko egiturentzat ere hitzordu nagusi bat da, bai salmenten aldetik, baina ere egiasko erakuslehio bat baita, topagune bat.

Iparraldeko parte-hartzaileen bihotz taupadek ere bat eginen dute Azokako taupadekin. Aurten ere berritasun ugarirekin izanen dira azokan. Urtero bezala, proposamen anitza izanen da eta kultur ekoizpen zabal bat aurkitzen ahalko da: haur literatura, diskoak, eleberriak, aditz kartak, egutegi bat, olerki bildumak, literatur aldizkariak...

Orain duela hamalau urte abiatu **Gerediaga elkartea antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker**, Ipar Euskal Herriko ekoizpenak argiago agertzen dira Durangoko azokan eta aurten bereziki, komunikazio azkarrago bat plantan eman da. Aurten Iparraldeko sortzaileen 38 berritasun aurkitzen ahalko dira denda birtualean, bai eta beste urteetako ekoizpen frango ere.

2020ko ediziorako datu orokorrak:

2020ko kartelaren sortzailea: Ane Pikaza

Parte-hartzaileak: 185

100 kultur ekitaldi baino gehiago

Aurkeztuko diren berritasunak: 852

Liburuak: 636 · **Musika-produktuak:** 100 · **Aldizkariak:** 44 · **Bestelakoak (jokoak, agenda, egutegiak...):** 72

Iparraldeko egituren datuak:

10 egitura + 2 autoekoizle

38 berritasun: 23 liburu, 9 disko eta 3 bestelako ekoizpen (egutegi, aldizkari, aditz karta)

3 kultur ekitaldi: disko aurkezpena, haurrendako irakurraldi bat...

«TAU PA DA!» : Les battements de cœur de la culture

Le thème de la 55ème édition : TAU PA DA ! (« Le battement de cœur »)

Cette année, la 55ème édition de la Foire de Durango sera bien différente. Le contexte sanitaire a constraint les organisateurs à repenser complètement le salon qui se veut être la Place de la culture basque. On ne pourra pas retrouver les stands qui remplissent chaque année l'espace Landako et tous les produits seront mis en vente par le biais d'une boutique en ligne.

Le programme culturel sera lui aussi impacté : certaines présentations seront ouvertes au public avec une jauge restreinte (inscriptions au préalable, nombre de places très limité). Au lieu des 8 espaces que nous connaissons, seuls 2 accueilleront les présentations : Landako gunea et Plateruena.

Le principal changement de cette édition sera la mise en place d'une boutique en ligne à travers le site durangokoazoka.eus. Du 4 au 8 décembre 2020, 2 300 produits seront mis en vente (nouveautés et produits des années précédentes). Les amateurs de culture basque pourront faire leurs achats via le site et les recevront ensuite directement chez eux.

Comme l'a souligné Nerea Mujika, présidente de l'association Gerediaga, le Salon de Durango fait face à un immense défi: « Ces 55 dernières années ont montré la capacité du Salon à s'adapter, et cette année également la manifestation qui rassemble des dizaines de milliers de personnes a su se réinventer sans qu'elle ne perde son identité. Elle ne pourra pas avoir lieu en présentiel mais elle offrira sa place digitale à la culture basque. »

L'enquête sur les habitudes culturelles réalisée en 2019 par Siadeco a révélé que le **Salon représente 22% des ventes annuelles pour les Maisons d'édition et de disque du Pays Basque sud**. Si ce chiffre n'est pas aussi important pour les structures d'Iparralde, le Salon de Durango reste un rendez-vous incontournable en ce qui concerne les ventes, mais aussi parce que c'est une vitrine, un lieu de rencontres avec les autres professionnels.

Aux battements de cœur du Salon vont se joindre ceux des structures et artistes d'Iparralde. Cette année encore ils présenteront un panel de productions culturelles riche et varié : littérature jeunesse, disques, romans, calendrier, recueils de poèmes, revues littéraires...

Le partenariat impulsé il y a maintenant 14 ans entre **l'association Gerediaga, organisatrice du Salon, et l'Institut culturel basque** permet cette année encore de mettre en lumière les productions d'Iparralde et particulièrement cette année en renforçant la communication autours des structures participantes.

38 nouveautés d'Iparralde seront en vente par le biais de la boutique en ligne en plus de nombreuses productions des autres années.

L'édition 2020 en quelques chiffres :

Création de l'affiche 2020 : Ane Pikaza

Nombre de participants : 185

Plus de 100 événements culturels

Nombre de nouveautés présentées : 852

Livres : 636 · **Disques**: 100 · **Revues**: 44 · **Autres** (jeux, agenda, calendrier...): 72

Chiffres des structures d'Iparralde:

10 structures participantes et 2 autoproductions

38 nouveautés : 23 livres, 9 disques et 3 autres types de produit (calendrier, revue, cartes)

3 rendez-vous culturels (présentations de disques, lecture jeunesse)

IPARRALDEKO EGITURAK - Les participants d'Iparralde

TAU PA DA!

Aurten, Iparraldetik 10 egitura izanen dira azokan: **6 argitaletxe, 3 diskoetxe, bestelako egitura bat eta 2 autoekoizpen.**

Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar talde osoaren baitan ordezkatua da.

10 structures d'Iparralde participent à cette édition : 6 maisons d'édition, 3 labels discographiques, une autre structure et 2 autoproductions. A noter que la branche Iparralde de la maison d'édition Elkar est intégrée au groupe Elkar.

Argitaletxeak · Maisons d'édition: Maiatz, Ikas, Gatuzain, Zortziko, Matahami & Elkar

Diskoetxeak · Labels discographiques: Agorila, Saroia & Belarri

Bestelako egitura · Autre structure: Iparraldeko Ikastolak

Autoekoizpenak · Autoproductions: Hutsaren Hatsa zibilua, Kalapita produkzioak

maiatz.

ikas



ZORTZIKO
ARGITALETXEA

matahami

ekar

AGORILA

belarri.

SAROIA



AURKIBIDEA - Sommaire

LIBRUAK - Livres	6
LIBURU - DISKOAK - Livre-Disques	12
DISKOAK - Disques	13
BESTELAKO EKOIZPENAK - Autres productions	16
HITZORDUAK - Les RDV	18
INFORMAZIO OROKORRAK - Infos générales	22

TAU PA 

ELKAR ARGITALETXEA



Ene baitan bizi da

Egilea | auteure: Maddi Ane Txoperena

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Askotariko istorioak gurutzatzen dira Maddi Ane Txoperenaren lehen eleberrian: 1950.eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian eta Frantzian neskato ibilitako emazteen errealityateak, lehengo eta oraingo maitasun eta desamodio istorioak, laneko sufrimenduak, gatazka politiko baten ondorengo testuinguru baten ezinak, amatxi-biloba eta alaba-guraso harreman korapilatsuak... Guzia etorkizunaren eta orainaren arteko zubi jolas batean..

La journaliste et bertsolari Maddi Ane Txoperena a publié son premier roman Ene baitan bizi da (Elle vit en moi) grâce à la bourse littéraire Gazteluma. Marie une jeune femme de Saint-Jean-de-Luz partie étudier à Paris découvre le passé de sa grand-mère Josefina de Bera. Maddi Ane Txoperena nous propose une immersion dans le quotidien des jeunes filles employées de maison dans les années 1950 en Iparralde et en France.

IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA



Intza eta Tomas, Sorginaren sekretua

Egileak | auteur.e.s: Elise Dilet, Antton Hariñordoki - Laure Gomez (ilus.)

Generoa | Genre : Haur literatura 8 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 8 ans

Herrian sorginei buruzko ikuskizun baten prestatzen hasi direnetik, gauza bitxiak gertatzen dira. Intzak eta Tomasek misterio handiak eta ttipiak zilatuko dituzte. Abentura horien harira, lehengo sekretuak eta oraingoak hobeki ulertuko dituzte, sorginen denbora ez baita hain aspaldikoa... Gazte literaturak narrazioa, eta dokumentala urrunago joateko (testuinguru historikoa).

Depuis qu'ils préparent un spectacle sur les sorcières, des évènements bizarres se produisent dans le village. Intza et Tomas perceront des petits et des grands mystères. Au fil de cette aventure, ils comprendront mieux les secrets d'autrefois et ceux d'aujourd'hui, car le temps des sorcières n'est pas si lointain... Narration pour les jeunes, avec textes documentaires pour aller plus loin (contexte historique).



Ozeanoaren konkista

Egilea | auteure: Haize Othondo

Generoa | Genre : Haur literatura 8 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 8 ans

Amets haurrak herritarren sinesmenak entzun eta, Lagun xakurrarekin urpeko munstro baten harrapatzeko gogoa du, animalia dela frogatzeko... Egia ala ametsa? Gaiak: zientziak, ingurumena, jakintzak.

Après avoir entendu les croyances des villageois, l'enfant Amets aidé de son chien Lagun, désire attraper le monstre sous-marin pour prouver que c'est un animal... Rêve ou réalité ? Thèmes : sciences, environnement, savoirs.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



Zera

Egilea | auteur.e.s: Stéphane Servant, Cécile Bonbon (ilus.)

Generoa | Genre : Haur literatura 3 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 3 ans

Behin, aintzira hegian, Bobo elefanteak zera bitxi bat bildu zuen. Alde guzietara itzulikatu eta, txanoa zitekeela zioen. Bainan animalia guziek ez dute iritzi bera. Hara non gizontto bat biluzik ateratzen den aintziratik... Gaiak: irri jokoa/broma, gertakariz gertakariko kontakizuna, umorea.

Un jour, près du grand lac, Bobo l'éléphant ramasse un drôle de machin. Après l'avoir retourné dans tous les sens, il décrète qu'il s'agit d'un chapeau. Mais tous les animaux ne sont pas de cet avis ! Voilà qu'arrive un petit homme tout nu... Mots Clés : Farce, conte-randonnée, humour.

MAIATZ ARGITALETXEA

Alta maite nuen



Pierre Mestrot

maiatz.

Amodioaren indarrez



Piarres Trounday Xaramendi

maiatz.

askatasuna

eleberria



odon noblia

maiatz.

Alta maite nuen

Egilea | auteur: Pierre Mestrot

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Amodioak denak garaitzen ahal dituela, liburu hunkigarri batean sartzen gaitu Piarresek bere kontalari dohain bereziarekin.

L'amour qui triomphe de tous les obstacles, c'est la leçon que nous propose un conteur de la langue populaire basque.

Amodioaren indarrez

Egilea | auteur: Piarres Trounday

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Bosgarren liburu honetan, Piarres Trounday-k Ameriketako pilota mundura eramaten gaitu, drama kriminal itxurarekin bururatuko den maitasun kontakizun batean.

Dans ce cinquième roman policier, l'auteur nous mène dans les canchas américaines dans une histoire d'amour qui mène à une tragédie.

Askatasuna

Egilea | auteur: Odon Noblia

Generoa | Genre : Gazte literatura - eleberria · Littérature jeunesse - roman

Gazte literaturaren inguruko obra honek bi gaztek munduan zehar egin bidaiaik kontatzen dizkigu, non ere maitasun berri bat sortuko duten.

Une œuvre de littérature de jeunesse montrant le parcours de deux jeunes dans des capitales diverses où ils se construiront un amour.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres

Euskal Gerrikoia

Euskaldunen lehen
gerriko sakratua



Xerar Urrutia Jorajuria

maiatz.

EZKUTUAN DAGOENA



Elene Tamayok irudiztama

hala bazan hala ez bazan...

ipuin bilduma



joseba aurkenerena barandiaran

maiatz.

Euskal gerrikoia

Egilea | auteur: Xerar Urrutia Jorajuria

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Urruña, idazlearen sorterriko mundua aipatuz, ixtorio honek sorgin ihiziaren denboran sarrarazten gaitu, euskal nortasunaren deuseztatzeko aitzaki hura gogora ekarriz.

L'auteur urruñar nous plonge dans le monde de la chasse aux sorcières qui fut le prétexte pour annihiler l'identité basque.

Ezkutuan dagoena

Egileak | auteures: Marisa Arruabarrena - Elene Tamayo (ilus.)

Generoa | Genre : Poesia · Poésie

Bere lehen liburuan, idazle oriotarrak ezkutuan dena, bizi pertsonala dena agerian ematen du, munduaz gozatzeko atea ireki behar direla erakutsiz.

L'auteure d'Orio montre qu'il faut libérer ce qui est caché en nous, qu'il faut ouvrir les portes pour jouir du bonheur offert par le monde.

Hala bazan, hala ez bazan

Egilea | auteur: Joseba Aurkenerena

Generoa | Genre : Gazte literatura - ipuin bilduma · Littérature jeunesse - recueil de contes

Molde atseginean euskal munduko hainbat gertakizun kontatzen ditu bere maisu talendu osoarekin, gure iraganarekin topo eginez.

Le livre nous propose une rencontre avec des événements historiques d'une manière plaisante, en nous plongeant dans une mémoire basque souvent oubliée.

MATAHAMI ARGITALETXEA

Aldo Bakar-Bakarrik

Egileak | auteures: Gwénola Morizur- ilus. Clémence Itssaga - itzulp/trad: Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur literatura 2 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 2 ans


Gaur, amaren urtebetetzea da. Iratzartzean, Aldori ideia bikaina jin zaio gogora. «Bixkotx bat prestatuko dut... bakar-bakarrik!» - Berrargitalpena osoki euskaraz.

Aujourd'hui, c'est l'anniversaire de maman. En se réveillant, Aldo a une super idée. « Je vais cuisiner un gâteau... Tout seul ! » - Réédition entièrement en euskara.



IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



Aldo eta munstro iletsua

Egileak | auteures: Gwénola Morizur- ilus. Clémence Itssaga - itzulp/trad: Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur literatura 2 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 2 ans

Bi argitalpen : osoki euskaraz edo elebiduna (eus+ fr) · Deux éditions: en euskara ou bilingue (eus + fr)

Gaur, Aldok bere Aitatxi-Amatxien etxearen lo egiten du. Lokarrarazteko, Aitatxik munstro iletsuen ipuina kontatzen dio...

Ce soir, Aldo dort chez son Papi et sa Mamie. Pour l'endormir, Papi lui raconte une histoire avec des monstres poilus...

Aldo musikari

Egileak | auteures: Gwénola Morizur- ilus. Clémence Itssaga - itzulp/trad: Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur literatura 2 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 2 ans

Aldok danborra ez du sekula uzten, goizetik arrats jotzen du, loriatzen da! Bainan etxearen, ez dute denek berdin bizi. - Berrargitalpena osoki euskaraz.

Pour Noël, Aldo a eu un tambour. Il en joue matin et soir, il adore ça ! Mais, dans sa maison, tout le monde n'est pas du même avis.

Bartoxeko Olentzero

Egileak | auteur.e.s: Antton Kazabon - ilus. Laure Gomez - zuz. Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur literatura 3 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 3 ans

Bi argitalpen : osoki euskaraz edo elebiduna (eus+ fr) · Deux éditions: en euskara ou bilingue (eus + fr)

Neska-mutiko anitz izitzen dira Olentzerorekin, itxura beldurgarra duelako: bisaia beltza, tripa handia... Bainan jada Maddi ez da izitzen. Ez behintzat Bartoxeko Olentzerorekin. Zergatik ote?.

Les enfants sont souvent effrayés par Olentzero, son visage noir, sa carrure imposante... Pour une fois, Maddi n'a pas peur, elle ne craint pas l'Olentzero de Bartoxe. Mais pour quelle raison ?

Mikela bila eta bila - L'enquête de Mikela


Egileak | auteur.e.s: Ana Imaz - ilus. Gérald Guerlais


Generoa | Genre : Haur literatura 4 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 4 ans

Elebiduna · Bilingue (eus + fr)

Gaur, goizeroko bezala, Mikela igela lanera joan da. Bidean, ezezagun misteriotsu bat gurutzatu du...

Ce matin, comme tous les matins, Mikela la grenouille se rend à son travail. En chemin, elle croise un mystérieux inconnu...





Nino

Egilea | auteures: Stéphanie Harispuru - ilus. Clara Lefebvre

Generoa | Genre : Haur literatura 4 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 4 ans

Elebiduna · Bilingue (eus + fr)

Nino mutiko txoriburua da, usu burua hodeietan duena. "Aizu, Nino, ez zaude bakarrik" errepikatzen diote bere lagunek, jantegian edo jolastokian... Baino Ninok inguruan dituenak ahazten ditu eta ez du jasaten haserretzen zaizkiolarik. Orduan, komunean gordetzen da baina ateko kisketa blokatua gelditzen da. Aldi honetan, Ninok besteen beharra izango du eta ohartuko da ez dagoela bakarrik...

Nino est un petit garçon étourdi, qui a souvent la tête ailleurs. « Hé Nino, tu n'es pas tout seul » lui répètent souvent ses amis, à la cantine ou dans la cour d'école... mais Nino a tendance à oublier les autres et ne supporte plus de se faire houspiller. Il se réfugie alors dans les toilettes, tout seul...

ZORTZIKO ARGITALETXEA



Bakartasunaz bi hitz / Condamné à l'isolement

Egilea | auteur: Filipe Bidart

Generoa | Genre : Lekukotasun elebiduna (eus+fr) · Témoignage bilingue (eus+fr)

Filipe Bidart Baxenafartarrak idatzi liburu honetan, presondegi denborako hastapenak kontatzen dizkigu. 25 hilabete bakarturik izan zuteneko egunetan oinarrituriko testigantza xamurra bezain latza da arratoi eta uniformedunen konpainian idatzi *Bakartasunaz bi hitz*.

Le Bas-Navarrais Filipe Bidart nous propose avec cet écrit le récit des débuts de sa captivité. "Bakartasunaz bi hitz" est le témoignage profond et violent de 25 mois d'isolement, écrit en compagnie des rats et des uniformes.


Impossible Aurore

Egilea | auteur: Michel Oronos

Generoa | Genre : Saiakera · Essai


Michel Oronos Baigorriarra teologia eta letra lizientziaduna da, bai eta euskal ikasketetan doktorea ere. 2017an, Domintxaineko mugimendu integrista ikertu du, Bertrand Laurent miliziano gaztearen eta René Jean 20 urtetan Buchenwald-en hil zen deportatu gaztearen ibilbideak aztertzaz.

Natif de Baigorri, Michel Oronos est titulaire d'une licence de théologie, d'une maîtrise de lettres et d'un doctorat en études basques. En 2017, il enquête dans le milieu intégriste de Domezain en suivant la route d'un jeune milicien, Bertrand Laurent et d'un jeune déporté, René Jean, mort à 20 ans à Buchenwald.



IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



Iparra galdu gabe

Egilea | auteur: Joseba Aurkenerena Barandiaran

Generoa | Genre : Saiakera · Essai

Euskal nortasunaren ezinbesteko osagaiak diren mintzaira, kultura eta historia aipatzen ditu liburu honek. Aitzineko belaunaldiak ukantzen dituen elementuak. Ipar eta Hego, Euskal Herriak bere osotasunean aitzina egin behar du, txanpon beraren bi aldeak baitira.

Ce livre parle des éléments fondamentaux qui font l'identité basque, sa langue, sa culture, son histoire. Des éléments que l'ancienne génération n'a pas eu. Le Pays Basque dans sa totalité, Nord et Sud, doit avancer ensemble, comme deux faces d'une même pièce.



Iparretarrak

Egilea | auteur: Eneko Bidegain

Generoa | Genre : Saiakera · Essai

Bi argitalpen · Deux éditions: eus + fr

Egileak berrogei bat elkarrizketa egin ditu liburu honetarako, besteak beste IKKO militante ezagunenek (F. Bidart, T. Etxebeste, G. Mouesca...) lehen aldiz hitz egin zuten liburu honetarako. Beste kide eta hurbileko askoren hitzez gain, IKREN kontra aritu ziren polizia eta epaile batzuen lekukotasunak ere badaude.

Dans cet ouvrage, et pour la première fois, de nombreux militants de cette organisation dont Filipe Bidart, nous livrent leurs témoignages et analyses. Des magistrats et des policiers ayant participé à leur traque se sont également confiés à l'auteur.



KLAK!

Egilea | auteur: Iñaki Martiarena Otxotorena «MATTIN»

Generoa | Genre : Bande-dessinée · Komikia


KLAK! Ideki, hetsi. Bizia, erokeria. Gakotu, arrastoan sartu. Esperantza, etsipena. Birusa, birala. Askatasunaren atearen gibelean hiltzen dena deskubritu, idekitzen edo hesten dena, atearen zein aldetan garen araberan. Mattin-en obra berria, *Klak!*, gaurko egoera tratatzen duen komikia da. Testurik gabekoa izanik, denek irakur dezakete.

KLAK! Ouverture, fermeture. Vie, folie. Tour de clef, tour de vis. Espoir, désespoir. Virus, viral. Découvrez ce qui se vit et ce qui se meurt derrière la porte de la liberté qui s'ouvre ou qui se ferme suivant le côté où l'on se trouve. KLAK! La nouvelle œuvre de Mattin, sous forme de BD sans texte, traite de l'actualité. Sans texte, elle peut être lue par tous.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURU- DISKOAK - Livre-disques

ELKAR ARGITALETXEA




Baiona - Arian irakurgai mailakatua

Egileak | auteur.e.s: Bea Sallaberry - ilus. Asisko + Dom

Generoa | Genre : Ikas metodoa · Méthode d'apprentissage

ARIAN Irakurgai mailakatuen bilduman, ipuin, nobela eta testu periodistikoak biltzen dira, A1, A2, B1 eta B2 mailetara egokituta. Testu idatziarekin batera, liburu guziek audio-liburua badute, ulermenai lantzeko ariketak eta hiztegi laburra. Baiona ezagutzeko gida. Bilduma berean daude Bilbo, Donibane Garazi, Donostia, Gasteiz, Iruña eta Maule-Lextarreko gidak.

Collection de lectures graduées pour les niveaux A1, A2, B1 et B2 avec des textes journalistiques, des histoires et des romans de thèmes variés. Tous les titres incluent un livre audio avec le texte écrit, un court dictionnaire et des exercices pour pratiquer la compréhension de lecture. Guide pour découvrir Bayonne. A retrouver dans la même collection, des titres sur Bilbao, St-Jean-Pied-de-Port, Donostia, Vitoria, Pampelune et Mauléon-Licharre.




Donibane Garazi - Arian irakurgai mailakatua

Egileak | auteur.e.s: Nora Arbelbide - ilus. Asisko + Dom

Generoa | Genre : Ikas metodoa · Méthode d'apprentissage

ARIAN Irakurgai mailakatuen bilduman, ipuin, nobela eta testu periodistikoak biltzen dira, A1, A2, B1 eta B2 mailetara egokituta. Testu idatziarekin batera, liburu guziek audio-liburua badute, ulermenai lantzeko ariketak eta hiztegi laburra. Donibane Garazi ezagutzeko gida. Bilduma berean daude Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz, Iruña eta Maule-Lextarreko gidak.

Collection de lectures graduées pour les niveaux A1, A2, B1 et B2 avec des textes journalistiques, des histoires et des romans de thèmes variés. Tous les titres incluent un livre audio avec le texte écrit, un court dictionnaire et des exercices pour pratiquer la compréhension de lecture. Guide pour découvrir St-Jean-Pied-de-Port. A retrouver dans la même collection, des titres sur Bilbao, Bayonne, Donostia, Vitoria, Pampelune et Mauléon-Licharre.



Maule-Lextarre - Arian irakurgai mailakatua

Egileak | auteurs: Allande Sokarros - ilus. Asisko + Dom

Generoa | Genre : Ikas metodoa · Méthode d'apprentissage

ARIAN Irakurgai mailakatuen bilduman, ipuin, nobela eta testu periodistikoak biltzen dira, A1, A2, B1 eta B2 mailetara egokituta. Testu idatziarekin batera, liburu guziek audio-liburua badute, ulermenai lantzeko ariketak eta hiztegi laburra. Maule-Lextarre ezagutzeko gida. Bilduma berean daude Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz, Iruña eta Donibane Garaziko gidak.

Collection de lectures graduées pour les niveaux A1, A2, B1 et B2 avec des textes journalistiques, des histoires et des romans de thèmes variés. Tous les titres incluent un livre audio avec le texte écrit, un court dictionnaire et des exercices pour pratiquer la compréhension de lecture. Guide pour découvrir Mauléon-Licharre. A retrouver dans la même collection, des titres sur Bilbao, Bayonne, Donostia, Vitoria, Pampelune et St-Jean-Pied-de-Port.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

DISKOAK - Disques

AGORILA EKOIZPEN ETXEA



Veloma

Egileak | auteures: Pauline & Juliette

Generoa | Genre : Folk, world, afro

Bigarren disko honetan, bikoteak 12 kantu (7 sorkuntza) aurkezten dizkigu. Folk, world eta afro musiketan oinarrituz, Pauline eta Julietek erritmoz eta sensibilitatez betea den obra bat eskaintzen digute. 6 hizkuntzetan kantatuak diren abestiek, bidaia, gizartea, maitasun harremanak, inspirazioaren bilatzea eta bi kantarien sorterroak aipatzen dituzte.

Dans ce 2ème album de 12 titres (dont 7 créations originales), mêlant le folk, la world et la musique afro, Pauline & Juliette nous révèlent un répertoire plein de sensibilité et de rythme. Les chansons qui sont interprétées en 6 langues différentes évoquent le voyage, la société, les relations amoureuses, la recherche de l'inspiration, ou bien encore, les origines des deux jeunes chanteuses.

Zubiak

Egilea | auteur: Otxalde

Generoa | Genre : folk

Hamaika kantuz osatu 6. disko honetan, nazioarteko kantuak eta konposaketa tradizionalak uztartuz, Otxalde taldeak folk doinu ezberdinez bete unibertsobatean sarrarazten gaitu. Kantuak askatasunari, batasunari, bakeari, Euskal Herriari eta euskarari buruzkoak dira.

Dans ce 6ème album de 11 titres, mêlant reprises internationales et compositions originales, Otxalde nous plonge dans un univers folk et varié, à travers un répertoire singulier mais également audacieux. Les chansons font référence à la liberté, l'unité, la paix mais aussi à l'Euskal Herri et sa langue.

Gure Iurra

Egilea | auteur: Michel Etcheverry

Generoa | Genre : Ohizko kantu · Traditionnel

29. disko honetan, Michel Etcheverryk gogoko dituen gaiak aipatzen dizkigu: adiskidetasuna, errugbia, maitasuna, bere herria, diaspora, Akitania... Etchegaray apezpikua betiko lagunari eskaini omenaldi zirraragarri batekin bukatzen...

Dans ce 29ème album, Michel Etcheverry vous entraîne dans le plus profond de lui-même, autour de thèmes comme l'amitié, le rugby, l'amour, son pays, la diaspora, l'Aquitaine... Pour finir sur un vibrant hommage à son ami de toujours Mgr Etchegaray.

Maiatzaren dantza

Egilea | auteur: Izarrak

Generoa | Genre : Folk

“Maiatzaren Dantza” deitu Aldudeko ibarreko taldearen 4. diskoan, ondoko gaiak aurki daitezke: amodia, lur sakratu urrun baten deskubritzea, bakoitzak izan nahi duena hautatzeko askatasuna, erroen garrantzia, bildutasuna... Disko berri honetarako gainera, taldekideak musikaren eta hitzen sortzaile bilakatu dira.

“Maiatzaren Dantza” est le 4ème opus du groupe originaire de la vallée des Aldudes où on retrouve les thèmes suivants: la rencontre de l’Amour, la découverte d’une terre lointaine, la liberté de choisir ce que nous sommes, l’importance de nos racines ou le recueillement... Un album qui voit les chanteuses s’impliquer à leur tour dans la composition ou l’écriture.



IPARRALDEKO EKOIZPENAK

DISKOAK - Disques

BELARRI EKOIZPEN ETXEA

t'mAmAztAng"t

Egilea | auteur: BBAX

Generoa | Genre : Euskal Musika / Trad. / World



BBAX bere hirugarren diskoarekin datorkigu, ahots hutsez, taldeak musikan ezarri Allande Oihenarten testuak eta euskal kantuak nahasiz. Taldeak, hamaika kantu osaturiko diskoa Isturitzeko harpeetan grabatu zuen 2019ko azken egunetan. Polifoniek Euskal Herriko, baina ere Okzitaniako eta Kortsikako eraginak badituzte. Harmonia eta disonantziak nagusi dira. Mundu eder bezain ero honen isphilu dira.

BBAX nous présente son troisième album, a capella, mélange de textes d'Oihenart mis en musique par le groupe, et de chansons du répertoire basque. Cet opus composé de onze titres à été enregistré dans les grottes d'Isturitz durant les derniers jours de l'année 2019. Ses polyphonies sont d'influences basques, mais aussi occitanes et corses. L'harmonie et les dissonances y sont maîtres, y sont les miroirs de ce monde aussi beau qu'insensé.

Barrakoian 25 urte

Egilea | auteur: Jexuxmai Lopetegi & Noizbehinka banda

Generoa | Genre : Bilduma / Kantautore / Pop



Jada 25 urte igaro dira Niko Etxarten Kilikas estudioan grabatu zutela lehenengoa. Geroztik, Zarautzko Bidarte berriko "Noizbehinka studio" izan da Jexuxmai Lopetegi & Noizbehinka bandaren laborategia, maketazio, entsaio eta lagun arteko jam-edan saioen tokia. Kalean diren zazpi diskoetako 14 kantek osatzen dute bilduma berri hau. Kantu hautaketa ez da erraza izan, baina hemen daudenak 25 urteko ibilbidearen isphilu dira. Hitzei erreparatu ezkero, Joseba Sarrionandia eta Harkaitz Canoren testuak beti dira lagun onak kantak osatzerakoan.

Cela fait déjà 25 ans que le premier album "Jexuxmai & Noizbehinka", enregistré au studio "Kilikas" de Niko Etxart, est paru. Depuis, le "Noizbehinka studio" de Zarautz à été le lieu de répétition, de création et d'enregistrement du groupe. 14 titres composent cette nouvelle compilation, tous issus des 7 albums précédemment publiés. Les morceaux choisis représentent ces 25 ans de création. Quant aux textes, ceux de Joseba Sarrionandia et Harkaitz Cano sont toujours parfaits pour créer des chansons.

eHe (errare Humanum est)

Egilea | auteur: Pantxix Bidart

Generoa | Genre : Kantautore / Alternative



Artista oparo honek bere bakarkako lehen diskoa aurkezten digu "eHe - errare Humanum est" izenburukoa. Errealismoa eta ametsa elkartzen dituen diskoa, azken hogei urte hauetan Pantxixek sortu 10 bat kantuz hornitua. Euskal poetak ditu ohoretan ezarri nahi (Itxaro Borda, Xabier Lete, Agustin Zamora, Leire Bibao, Kirmen Uribe, Amaia Hennebutte, Jon Mirande,...) malenkoniaz betetako kantu simple bezain indartsuetan.

Cet artiste prolifique présente son premier album solo intitulé "eHe - errare Humanum est". Un disque qui allie réalisme et rêve, avec une dizaine de chansons créées par Pantxix ces vingt dernières années. Il veut faire honneur aux poètes basques (Itxaro Borda, Xabier Lete, Agustin Zamora, Leire Bibao, Kirmen Uribe, Amaia Hennebutte, Jon Mirande, ...) dans des chansons aussi simples que mélancoliques.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

DISKOAK - Disques

HUTSAREN HATSA ZIGILUA



Hutsaren Hatsu


Egilea | auteur: Aguxtin Alkhat

Generoa | Genre : Folk - Rock

Hutsaren Hatsu Aguxtin Alkhaten estudioko hirugarren lana da. Bere taldekideekin, Folk, Rock, Pop eta Blues estiloak jorratu ditu disko honetan. Musikariak hauek dira: Julien Labat gitarran, Xan Bidegain baxuan eta Pierre Sangla baterian. Gomita bereziak ere badaude, hala nola Kamila Zubeldia ahotsean eta Kiki Graciet ahosoinuan.

"Hutsaren Hatsu" est le troisième album studio d'Aguxtin Alkhat. Un disque dans lequel on retrouve des influences de folk, de rock, de pop et de blues. Toujours accompagné de son groupe, Julien Labat à la guitare, Xan Bidegain à la basse et Pierre Sangla à la batterie, on y retrouve aussi Kamila Zubeldia au chant ainsi que Kiki Graciet à l'harmonica.

KALAPITA PRODUKZIOAK



Muda

Egilea | auteur: Thierry Biscary

Generoa | Genre : Folk

Thierry Biscary-k *Muda* izeneko disko berria aurkezten du, lehen aldiz bere izen propioarekin. Lan horretan, muda zentzu zabalean aipatzen du: bilakaerak eta iraultzak, bakoitzak pairatzen edo hautatzen dituen aldaketak.

Thierry Biscary présente son nouvel album, "Muda", pour la première fois en son nom propre. Dans ce travail, il évoque la mue au sens large, les évolutions ou évolutions personnelles, les changements subis ou décidés de différents personnages.

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

BESTELAKO EKOIZPENA - Autre production

SEASKA



Seaska federazioko 2021eko egutegia


Egilea | auteur: Seaska

Generoa | Genre : 12 orrialdeko egutegia · calendrier 12 pages

Ikastolen egutegia aurten Eliane Heguiaphal argazkilariaren lanekin eta Euskal izendegiarekin osatua da.

Traditionnel calendrier des ikastola comportant un répertoire de prénoms basques et des clichés de la photographe Eliane Heguiaphal.

MAIATZ ARGITALETXEA



Maiatz aldizkaria 70 & 71


Egilea | auteur: Talde lana · collectif

Generoa | Genre : Aldizkaria · Revue

Literatur sorkuntzaren ohiko bilduma, berrogei bat lagunen lanekin eta muga ezberdinak gaindituz..

La revue offre le recueil habituel d'une création littéraire réalisée par une quarantaine d'auteurs, franchissant diverses frontières.

IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA



Nor-Nork / Nor-Nori-Nork aditz karta

Egilea | auteur: IKAS

Generoa | Genre : Euskararen lantzeko · pour travailler l'euskara

Adina · Age : 9 urtetik goiti · A partir de 9 ans

Nor-Nork / Nor-Nori-Nork orainaldian eta iraganaldian lantzeko karta.

Travail sur les flexions verbales en euskara, au présent et au passé.

IPARRALDEKO SORTZAILEEN HITZORDUAK

Les Rendez-vous des créateurs d'Iparralde

"Guztontzako segurua den Azoka"

1990az geroztik, Liburu eta disko azokak toki berezia eskaini nahi izan die kultura diziplina ezberdinei. Hortarako, gune bereziak antolatu ditu. Aurten, ezagutzen ditugun 8 gune horiek ez dira izanen eta kultura egitarau presentziala 2 espazioren bidez mantenduko da Durangon: Landako Gunea eta Plateruena. Saioak streaming bidez ikusten ahalko dira edo han bertan aitzinetik izena emanez (aforo mugatu batekin).

Durangoko Azokak aurten ere kultur egitarau oparoa eskainiko du nahiz eta programa murritzua izanen den: ikuskizunak, kontzertuak, liburu aurkezpenak, mahainguruak... Durangon, kulturaren plazan, zuzen zuzenean eta aurrez aurre kultur eskaintza hori gozatzeko aukera izanen da. Baino Durangora etorri gabe ere, streaming bidez jarraitu ahal izanen da webgunetik eta etxetik.

Azoka Telebistako kide den Oihane Agirrek azpimarratu duen bezala, kulturzaleek aukera izanen dute Azokako webgunetik Durangon gertatzen ari dena jarraitzea. Bi streaming kanal izanen dira durangokoazoka.eus webgunean, bata Landako Guneari dagokiona eta bestea Plateruenari, egunero goizeko 10:30etik 21:00ak arte zuzenean arituko direnak.


Aurten, 100 hitzorduren erdian, hiru aurkezpen programatuak izanen dira Iparraldeko egituren eta artisten bidez : Aguxtin Alkhat eta Patxix Bidart-en disko aurkezpenak eta Antton Kazabonen irakurraldi bat Laure Gomez –en ilustrazioen proiekzio batekin.

« Organiser un Salon sûr, pour tous »

Depuis 1990, le salon du livre et disque a souhaité offrir une place aux différentes disciplines culturelles en leur consacrant des espaces dédiés. Cette année, dans un contexte de crise sanitaire, nous ne retrouverons pas les 8 sites qui forment la Place de la culture. L'association Gerediaga a dû relever le défi d'organiser une manifestation sûre pour tous. Une programmation culturelle va être tout de même maintenue par le biais de 2 espaces : Landako Gunea et Plateruena.

Les différentes rencontres pourront être suivies sur place en direct (avec un système d'inscription au préalable et une capacité d'accueil du public très limitée) ou depuis chez soi par le biais de deux canaux qui assureront la diffusion en streaming depuis les 2 sites : Landako gunea et Plateruena de 10h30 à 21h00. Les présentations seront bien moins nombreuses mais nous avons pu tout de même organiser 3 rencontres avec les participants d'Iparralde.

Parmi la centaine de rendez-vous, 3 présenteront des créations d'Iparralde : les présentations de disques d'Aguxtin Alkhat et Pantxix Bidart et une lecture pour le jeune public d'Antton Kazabon accompagné des illustrations de Laure Gomez.



IPARRALDEKO HITZORDUAK



AHOTSENEA - ZUZENEKOAK

En direct

ABENDUAREN 6a, Igandea · Dimanche 6 décembre

15:30 Aguxtin Alkhat « Hutsaren Hatsa » (Hutsaren Hatsa zigidua)

ABENDUAREN 8a, Asteartea · mardi 8 décembre

20:15 Pantxix Bidart « eHe » (Belarri)

SAGUGANBARA - Ttiki eta handien plaza
L'espace des petits et des grands

ABENDUAREN 6a, Igandea · Dimanche 6 décembre

10:30 Antton Kazabon « Bartoxeko Olentzero » (Matahami)
Irakurraldia - Laure Gomez-en ilustrazioen proiekzioekin

Egitara osoa etxetik segitu streaming bidez · Retrouvez tout le programme depuis chez vous en streaming sur

<https://www.durangokoazoka.eus/eu/egitaraua>

TAU PA DA!



DENDA BIRTUALA Boutique en ligne

<https://www.durangokoazoka.eus/eu/denda>

2020ko abenduaren 4tik 8ra
du 4 au 8 décembre 2020

PARTAIDEAK · PARTENAIRES



2020ko BERRITASUNEN KATALOGO HONEN EGILEA :

Ce catalogue des nouveautés 2020 est édité par:

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA · INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia

64480 UZTARITZE · USTARITZ

TAU PA DA!

KATALOGOA ETA INFORMAZIO GUZIAK:

Le catalogue et toutes les infos:

www.durango.eke.eus

HARREMANETARAKO

Contact:

Maia Etchandy | maia.etchandy@eke.eus